



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko irailaren 11

71. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuaitu egiten baitu Altsasuko Udalak iragan uztailaren 27an onetsitako mozioa. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuaitzen baitu osasun arloko zerbitzuetatik kobratzea egoera irregularran dauden etorkinei. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Donejakue Bideko autobia A-68 autobiarekin eta N-232 errepidearekin lotzeko obrei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (5. or.).
- Galdera, bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (6. or.).
- Galdera, aferesi bidezko emateak bertan behera uzteko jarraitu ziren irizpide eta helburuei buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (6. or.).
- Galdera, Legateko *ipar zutarria* hausteari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Kultura Plan Estrategikoari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (8. or.).
- Galdera, merkataritza txikirako hartuko diren neurriei buruzkoa, ordutegiak liberalizatzearen eta BEZaren igoeraren eragina dela-eta buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (8. or.).
- Galdera, profesionalentzat eta langile autonomoentzat BEZaren igoera eta PFEZaren atxikipenen handitzea arintzeko neurriei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako herritarrek beren borondatea adierazteko egun dituzten mugak aldatzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, “Erorien omenezko Monumentu” deritzonaren kriptan meza bat egiteari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (10. or.).
- Galdera, SGAren urtekarian azaltzen den kultur sektorearen egoerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (10. or.).
- Galdera, Osasuna futbol taldea babesteari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (11. or.).

- Galdera, BPGren beheranzko joerari eta langabeziari buruzkoa, Bikendi Barea Aiestaran jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Kintoko mendietan legez kanpoko jarduketak eta okupazioak egiteari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (13. or.).
- Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko lana galtzen duten etorkinak Nafarroako Osasun Sistematik kanporatuko diren eta nola ziurtatuko zaien osasun-laguntza egoera irregularrean dauden pertsona etorkinei, Marisa De Simón Caballero andreak egina (14. or.).
- Galdera, ETBk Nafarroan LTDaren bidez emititzeko aukerari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ukatzen duen Osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean aitorturiko eskubide bat, zeina baita pertsona orok duela eskubidea estaldura unibertsaleko eta doako osasun laguntza jasotzeko, bere legez- edo administrazio-egoera kontuan hartu gabe, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera montepioei atxikitako funtzionarioek BOTa (TIS) eskuratu ahal izateari eta Nafarroatik kanpo osasun laguntza unibertsala eta finantzaketa publikokoa izateari buruz, José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (16. or.).
- Galdera, osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruzkoa, Pedro Rascón Macías jaunak egina (18. or.).
- Galdera, “Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (19. or.).
- Galdera, Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruzkoa, Enrique Martín de Marcos jaunak egina (19. or.).
- Galdera, Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainekoa, Román Felones Morrás jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko aurrekontuek eta egitura organikoak 2008, 2009, 2010 eta 2011n izandako bilakaerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (22. or.).
- Galdera, rgitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (23. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Sustapen Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (24. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Gizarte Politiketako Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (25. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Osasun Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (26. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Hezkuntza Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (27. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontusail guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (28. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko kontusail guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (29. or.).
- Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (30. or.).

- Galdera, PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehu-neko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (31. or.).
- Galdera, zergak Nafarroan ordaindu zituzten pertsona fisikoen kopuruaren igoerari buruzkoa, Gipuzkoan ondarearen gaineko zerga mantentzearen ondorioz, Nafarroan kendu egin baitzen, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (32. or.).
- Galdera, jakiteko Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (33. or.).
- Galdera, “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (34. or.).
- Galdera, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren eta Olaztiko Portland lantegian hondakinak balorizatzearen artean dagoen loturari buruzkoa. Galdera erretiratzea (34. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Konstituzioko berdintasun printzipioaren urraketatzat jotzen al duen zenbait ikastetxe pribatutan irakasleak kontratatzerakoan egiten den sexuaren araberako bazterketa, ikasgela bakoitzeko ikasleen sexuaren araberakoa, Marisa de Simón Caballero andreak egina (35. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak hitza ematen ote duen, Donapeako goi mailako lanbide ikastetxea dela eta, Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren borondate politikoa eta erabakia beteko duela, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (35. or.).
- Galdera, NUPeko ikasturte hasierako ekitaldian Foruzaingori emandako jarraibideei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (36. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Jesús Esparza Iriarte jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (37. or.).
- Francisco Javier Lorente Pérez jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (37. or.).
- Amaya Otamendi Claramunt andrea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea (37. or.).
- Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntak sortzea (38. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia-
tu egiten baitu osasun arloko zerbitzuengatik kobratzea egoera irregula-
rrean dauden etorkinei.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du osasun arloko zerbitzuengatik kobratzea egoera irregularrean dauden etorkinei.

2.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du egungo osasun-sistema mantentzearen alde lan egiteko borondatea, haren oinarritzko printzipioak –unibertsaltasuna, ekitatea, doakotasuna eta kalitatea– babestuz.

3.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du Foru Komunitatearen eskumenak defenditzeko erabaki irmoa hartu duela, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez dezan ezar murrizketa berri hau, zeinaren bidez PPK gure osasun publikotik bota nahi baititu egoera irregularrean dauden etorkinak; izan ere, neurri hori ez ezartzeko autogobernu-ahalmena dugu.”

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia-
tu egiten baitu Altsasuko Udalak iragan uztailearen 27an onetsitako
mozioa.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1.- Arbuiatu egiten du Altsasuko Udalak iragan uztailearen 27an onetsitako mozioa, terrorismoaren biktimen memoria gutxiesten duelako eta Guardia Zibilak eta Foruzaingoak herritik alde egin dezaten babesten duelako.

2.- Deitoratu egiten ditu terrorismoaren biktimen eta Estatuko segurtasun indar eta kidegoen aurka testuan jasotako hitzak eta adierazpenak.

2.- Guardia Zibila eta Foruzaingoa Altsasun egotea babesten du, eta haien jarduna ere bai, herriko bizilagunen segurtasuna hobetzen laguntzen baitute.

4.- Atsekabez hartzen du onetsitako mozioan biktimak eta terroristak parekatu izana.

5.- Uste du onetsitako mozioan jasotako hitzek eta adierazpenek ez dutela ezertan ere laguntzen Altsasuko bizikidetasun-giroa hobetzeko, zeina eskubide demokratikoekiko errespetu erabatekoan oinarritu behar baita.”

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Donejakue Bideko autobia A-68 autobiarekin eta N-232 errepidearekin lotzeko obrei buruzkoa.*JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Donejakue Bideko autobia A-68 autobiarekin eta N-232 errepidearekin lotzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Bideko Autobia dagoeneko eskualdea batzeko bide nagusia da, 480.000 biztanleri egiten baitie mesede zuzenean eta bultzada handia ematen baitio eskualdearen garapen sozioekonomikoari.

Asmoa da sendotu dadila bertako jendearen eta interesen Batasunaren Bide gisa.

Nafarroako Foru Komunitatearen historian azpiegitura bat dela-eta inoiz esleitu den kontraturik handiena da Iruña-Logroño autobia esleipen-kontratua, eta Espainian itzaleko bidesariaren sistemaren bidez gaur arte eman den kontraturik handiena ere bada.

Baina Bideko Autobia –2006an inauguratu zen– eta N-232 errepidea lotzeko obrak ez dira betetzen ari aurreikusitako martxa. Obra hori, Iruñaren eta Espainiako hiriburuaren arteko lotura irudikatzen duena, ez-inoren lurrean bukatzen da, Errioxako mugatik 1.800 metrora. Hortaz, hauxe jakin nahi dugu:

- Zertan dira Bideko Autobia, A-68 autobidea eta N-232 errepidea lotzeko obrak?

- Zer da obra horien bukaerari buruzko aurreikuspena?

- Zein izan da edo izanen da bideune horren kostu osoa eta zein da hasierako aurrekontuaren desbideraketa, baldin eta halakorik badago?

Iruñean, 2012ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Marta Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Iktus bat gertatuz gero, tratamendua ematean izandako atzerapenak eragin dezake istripu iskemiko iragankor bat –ondorio larririk gabekoa– iktus larri bihurtzea –bizitza osorako minusbaliotasunak eragin litzake, errehabilitazioa eta bizitza osorako ezereztasuna dakartenak–. Hona beste adibide bat: miokardio infartu akutu bat gertatuz gero, igarotzen den minutu bakoitzean % 10 jaisten da bizitxaropena; izan ere, igarotzen den minutu bakoitzean bihotzaren muskulaturaren zati handiago bat hiltzen da, eta ezereztasun partzial edo osoa eragiten du. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Bertan egon beharrik gabeko guardien kostua txikitzeari buruzko balorazioa egitean, kontuan hartu al da iktusaren edo istripu iskemiko iragankorraren moduko patologien ondorioak larriagotzea, zeinen norainokoa tratamendu mediko egozia emateko atzerapenarekiko zuzenean proportzionala baita?

Iruñean, 2012ko uztailaren 5ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, aferesi bidezko emateak bertan behera uzteko jarraitu ziren irizpide eta helburuei buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, aferesi bidezko emateak bertan behera uzteko jarraitu ziren irizpide eta helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Marta Vera andreak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

EAEko odol eta ehun bankura bisita egin eta haren prozedurak eta funtzionamendua ikusi eta gero, eta haren espezializazio-maila eta emaitza onak egiaztatu eta gero, jakin nahi dugu ea zergatik utzi diren bertan behera aferesi bidezko emateak. Hortaz,

- Zer irizpide eta helburu baliatu ziren aferesi bidezko emateak aldatzea erabaki zenean?

- Egin al da helburu horien betetzeari buruzko jarraipenik?

- Zein izan da emaitza?

Iruñean, 2012ko uztailaren 5ean.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Legateko *ipar zutarría* hausteari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Legateko *ipar zutarría* hausteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kasuko batzordean ahoz erantzuteko:

Iragan uztailaren 4an, gure erkidegoko hedabide idatzietako batek eman zuen albistearen arabera, hautsita agertu zen *ipar zutarría* menhirra, zeina Lorenzo Ondarrak Legaten aurkitu baitzuen 1973an. Hedabideak monumentu megalitikoaren bi argazki ere eman zituen, bata hautsi aurrekoa eta bestea hautsi ostekoa.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1. Departamentuak abiarazi al du berriazko ekintzarik halako ekintza baten arrazoiak eta egileak ezagutzeko? Hala baldin bada, zein da une honetan dagoen informazioa?

2. Departamentuaren ustez, gure erkidegoko ondare megalitikoak behar beste babestuta dago?

3. Departamentuak jarduketa osagarriak abiaraziko al du ondare horren kontserbazioa, ezaupidea eta dibulgazioa hobetzeko?

Iruñean, 2012ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Kultura Plan Estrategikoari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kultura Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren

188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran erantzuteko:

2011ko ekainaren 21ean, UPNren eta PSN-PSOEn arteko gobernu-akordioaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen Nafarroako Kulturari buruzko Plan Estrategikoa taxutu dadin bultzatzea, bere jarduketako helburu lehenetsi gisa.

Gertatutakoa ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuaren helburu lehenetsi izaten jarraitzen al du Nafarroako Kulturari buruzko Plan Estrategikoa taxutzeak? Hala baldin bada, adierazi zein diren helburuak, metodologia eta aurreikusitako egutegia. Hala ez baldin bada, adierazi zer dela-eta etsi duzuen.

Iruñean, 2012ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, merkataritza txikirako hartuko diren neurriei buruzkoa, ordutegiak liberalizatzearen eta BEZaren igoeraren eragina dela-eta buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, merkataritza txikirako hartuko diren neurriei buruzkoa, ordutegiak liberalizatzearen eta BEZaren igoeraren eragina dela-eta buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, kontseilariak Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordean ahoz erantzun dezan:

Ikusita PPren Espainiako Gobernuak hartutako erabakiak –merkealdiak nahiz merkataritzako ordutegiak liberalizatzea eta, batez ere, BEZa igoetzea, zeinek denda txiki asko ixtea ekar baitezakete–, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu ahal den neurrian arintze aldera ordutegiak liberalizatzeak eta BEZaren igoerak izanen dituen ondorio negatiboak Nafarroako Foru Komunitateko merkataritza txikiengan?

Iruñean, 2012ko uztailaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, profesionalentzat eta langile autonomoentzat BEZaren igoera eta PFEZaren atxikipenen handitzea arintzeko neurriei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, profesionalentzat eta langile autonomoentzat BEZaren igoera eta PFEZaren atxikipenen handitzea arintzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Industriako kontseilariak Nafarroako Parlamentuko Industria Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak neurririk hartuko al du BEZaren igoerak eta PFEZko atxikipenen igoerak profesionalengan eta langile autonomoengan izanen dituen ondorio negatiboak arintzeko?

Iruñean, 2012ko uztailaren 17an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroako herritarrek beren borondatea adierazteko egun dituzten mugak aldatzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako herritarrek beren borondatea adierazteko egun dituzten mugak aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andrearekin Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Zein da zure jarrera Nafarroako herritarrek beren borondatea adierazteko eta borondate horrek erakundeen jardunean isla zuzena izateko egun diren mugak aldatzeari buruz?

Iruñean, 2012ko uztailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Erorien omenezko Monumentu” deritzonaren kriptan meza bat egiteari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, “Erorien omenezko Monumentu” deritzonaren kriptan meza bat egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendi jaunak ahoz erantzun dezan:

Hedabide batean azaldu zen albiste baten arabera, iragan uztailearen 19an meza bat egin zen “Erorien omenezko Monumentu” deritzonaren kriptan, eta meza hartan 1936ko uztailearen 18ko altxamendu faxista goraiatu zen. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Gertakari horien larritasunaren aurrean, Foruzaingoak abiarazi al du ikerketa-prozedurarik?

Iruñean, 2012ko uztailearen 26an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, SGA Eren urtekarian azaltzen den kultur sektorearen egoerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, SGA Eren urtekarian azaltzen den kultur sektorearen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Sozialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osoko Bilkuran erantzuteko.

Nafarroari buruz SGA Eren azken urtekaritik ateratako datuak suntsitzaileak dira. Kultur jardueretako ikusle kopurua zeharo hondoratu da antzerkian, dantzan, zineman nahiz mota orotariko kontzertuetan. Horrek, logikoa denez, negozio-zifren eta kultura arloko eskaintzaren jaitsiera dakar.

Hona zenbateko horietako batzuk, ikusle kopuruak 2006tik 2011ra bitarte izandako bilakaerari buruzkoak:

	Nafarroa	Espainia
Antzerkia	% -42,46	% -16,14
Dantza	% -63,78	% -29,72
Lirika	% -75,92	% -19,21
Klasikoa	% -37,57	% -17,80
Herri-musika	% -42,01	% -7,33
Zinema	% -21,75	% -20,13

Bestalde, BEZaren igoerak are gehiago eragin diezaieke zenbateko horiei eta egoera berez kezagarri honi. Egoera hain da kezagarria eta ulergaitza, non Kulturako estatu-idazkari José María Lasallek berak adierazi baitzuen, Radio Nacional irrati-katearek uztailaren 26an egindako adierazpenetan, "nekez azal daitekeela".

Nafarroako Foru Komunitateak, Foruaren Hobekuntzako 44. artikuluan ezarritakoarekin bat, kulturaren arloko eskumen osoa duenez gero –Estatuarekin lankidetzan–, ondokoa jakin nahi dut:

Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia SGAE-ren urtekari horretan azaldutako egoerari buruz?

Ba al du neurriren bat hartzeko asmorik, kulturaren sektoreak gure erkidegoan bizi duen egoera jasanezina arintze aldera?

Iruñean, 2012ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Osasuna futbol taldea babesteari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Osasuna futbol taldea babesteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jacak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Azken hilabeteotan, Nafarroan inoiz egindako aurrekontu-murrizketa handienak egiten ari da Nafarroako Gobernua ongizatearen estatuari, osasunari, hezkuntzari eta gizarte politikari dagokienez.

Herritarren eskubiderik oinarrizkoenak urritzen dituzten murrizketen agertoki honetan behar-beharrezkoa da helburuak etengabe lehenestea, diru publikoaren banaketa bidezkoa izan dadin.

Arlo horretako jarduketak koherentziaz blaitu behar dira, eta ezin dira egon propaganda-helburuen mende edo epe laburrean gertatzen diren iritziz eta irizpide aldaketa muturrekoen mende.

1.- Nafarroako Gobernuak Club Atlético Osasunarentzako 1,4 milioi euroko laguntza mantenduko al du?

2.- Hala baldin bada, zeri zor zaio irizpidea errotik aldatzea, jendaurrean kontrakoa iragarri eta egun gutxitara?

Iruñean, 2012ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, BPGren beheranzko joerari eta langabeziari buruzkoa.

BIKENDI BAREA AiestARAN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bikendi Barea Aiestaran jaunak aurkeztutako galdera, BPGren beheranzko joerari eta langabeziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaranez, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ezagutu ditugun azken datuen arabera, Nafarroako ekonomian % 1,4 uzkurdu da BPGa azken urtean, eta erkidegoko langabeziari buruzko Biztanleria Aktiboaren Inkestak erakusten duenez, berriz, joera negatiboa da. Horrek guztiak hausnarketa sakona eragin behar du, Departamentuaren ekonomia- eta enplegu-politikak direla-eta.

Bi parametro horiek eta Estatuko joera alderatuz gero, gure erkidegoaren egoera are kezagarriagoa da. Estatuan % 1eko atzeraldia izan zuen BPGak, eta Nafarroan, berriz, Barne Produktu Gordinaren jaitsiera % 1,4koa izan zen, eta beste horrenbeste gertatzen da azken urteko langabezia-tasari dagokionez.

Defizit handi baten eta egiturazko gabezien erakusgarri dira egoera nahiz Espainiako Estatuarikiko aldea justifikatzeko erabili diren arrazoiak, esportazioen eta barne-kontsumoaren jaitsiera eta ahulezia eta industriaren sektoreak Nafarroaren ekonomian azken urteotan izandako jaitsiera nabarmena.

1.- Nafarroako BPGaren eta langabeziaren joera negatiboa zergatik dira Estatuko adierazleetan baino handiagoak?

Nafarroako ekonomia egiturazko arazo larriak izaten ari da automozioaren sektorearen nagusitasunagatik eta industriaren sektorearen pisua ahultzen ari delako Nafarroan?

Nafarroako Gobernuak zer ekimen-mota abiaraziko ditu ekonomiaren eta langabeziaren egungo egoera zuzentzeko?

Iruñean, 2012ko uztailearen 31n

Foru parlamentaria: Bikendi Barea Aiestaran

Galdera, Kintoko mendietan legez kanpoko jarduketak eta okupazioak egiteari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Kintoko mendietan legez kanpoko jarduketak eta okupazioak egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hedabideetan agertu diren albisteen arabera, legez kanpoko jarduketak eta okupazioak gertatu dira Kintoko mendietako lurraldeetan; zehazki, mugarrien bidez mugatu da tunel bat zulatu nahi den alderdia, eta pago-kopuru zehaztugabe bat markatu da.

Kontuan hartuta jarduketa horiek egin direla ukitutako administrazioen adostasunik gabe eta desjabetzeko prozesua egin gabe, Nafarroako Gobernuak zer iritzi du jarduketa horiei buruz?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, men ez egitea eta eraso egitea leporatuta Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuela-eta, gertakari horren inguruabarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Araudiak dionari jarraikiz, Morrás kontseilari jaunari honako galdera helarazten dio, zehazten den Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean ahoz erantzun dezan:

Iragan abuztuaren 9an Foruzaingoak Larragan gazte bat atxilotu zuen, "men ez egitea" eta "erasoa" egotzita. Kontseilari jaunak atxiloketa horren gorabeherak argi ditzan nahiko genuke. Zeintzuk dira atxiloketaren aurrekariak, arrazoia eta erabilitako prozedura?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko lana galtzen duten etorkinak Nafarroako Osasun Sistematik kanporatuko diren eta nola ziurtatuko zaien osasun-laguntza egoera irregularrean dauden pertsona etorkinei.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakiteko lana galtzen duten etorkinak Nafarroako Osasun Sistematik kanporatuko diren eta nola ziurtatuko zaien osasun-laguntza egoera irregularrean dauden pertsona etorkinei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2012ko maiatzaren 11n, "Nafarroan ekonomia eta enplegua sustatzeko eta 2012ko aurrekontugarapena nahiz defizitaren helburuaren betetzea bermatzeko akordioa" sinatu zuten UPNk eta PSNk. Akordioan, aldeek konpromisoa hartu zuten "osasun-laguntza ziurtatzeko, egungo baldintza beretan, Espainiako nazionalitatea izan gabe Nafarroan bizi diren guztiei, baldin eta Foru Komunitatean errolatuta badaude 2012ko abuztuaren 31 baino lehen, hala dei-efektua ekidinen baita aldi berean".

Bestalde, gora doa lana galdu eta bizileku-baimena gal dezaketen etorkinen kopurua.

Galdera:

Nafarroako Osasun Sistematik bazter utziko al dira pertsona horiek? Nafarroan nola ziurtatuko zaie osasun-laguntza gure erkidegoan egoera irregularrean dauden etorkin guztiei? Nola artatuko dira gaixo kronikoak edo beste edozein gaixotasun mota dutenak? Pertsona horiek nola eskuratuko dute medikuntza prebentiboa eta aringarria?

Iruñean, 2011ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ETBk Nafarroan LTDaren bidez emititzeko aukerari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, ETBk Nafarroan LTDaren bidez emititzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca andreak, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak dionari jarraikiz, Juan Luis Sánchez de Muniain Kontseilari jauna honako galdera helarazten dio, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan abuztuaren 20an Nafarroako Gobernuak LTD bidezko lizentziak atera zituen. Lizentzia horietan, ordea, ba al du lekuri ETBk? Ahalbidetu al da ETB Nafarroan LTD bidez emititua izatea?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ukatzen duen Osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean aitorturiko eskubide bat, zeina baita pertsona orok duela eskubidea estaldura unibertsaleko eta doako osasun laguntza jasotzeko, bere lege- edo administrazio-egoera kontuan hartu gabe.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Nafarroako Gobernuak ukatzen duen Osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean aitorturiko eskubide bat, zeina baita pertsona orok duela eskubidea estaldura unibertsaleko eta doako osasun laguntza jasotzeko, bere lege- edo administrazio-egoera kontuan hartu gabe.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Hedabideetan azaldu diren informazioak ikusita, eta ikusita, orobat, Munduko Medikuek elkartearekin izandako bileran egiaztatu dugunez, "papeirik gabeko" gaixo kronikoei hitzordua ukatzen zaiela eta baliabiderik gabeko pertsonen osasun txartela izapidetzea ukatzen zaiela Estatuko legea aplikatzen hasi aitzin ere, ondoko galdera egiten dugu:

• Nondik heldu da agindua? Nafarroako Gobernuak zergatik ari da ukatzen, PPK ezarritako legea indarrean sartu aitzin, eskubide bat, zeina baita pertsona orok duela eskubidea estaldura unibertsaleko eta doako osasun laguntza jasotzeko, bere

lege- edo administrazio-egoera kontuan hartu gabe?

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 23an.

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera montepioei atxikitako funtzionarioek BOTa (TIS) eskuratu ahal izateari eta Nafarroatik kanpo osasun laguntza unibertsala eta finantzaketa publikokoa izateari buruz.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera montepioei atxikitako funtzionarioek BOTa (TIS) eskuratu ahal izateari eta Nafarroatik kanpo osasun laguntza unibertsala eta finantzaketa publikokoa izateari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari, Legebiltzarreko Osoko Bilkurarako:

Iragan abuztuaren 4ko Estatuko Aldizkari Ofizialak argitara eman zuen abuztuaren 3ko 1192/2012 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Osasun Sistema Nazionalako asegurdun edo onuradun izaera, osasun-laguntza sistema horren bidez eta funts publikoen kargura jasotze aldera Espainian. Arau horrek, zeinak Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea eta Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorra garatzen baititu, Espainia-

ko herritar guztiei zabaltzen die sistema horretako osasun laguntzaren estaldura, bai eta atzeritarrei ere, baldin eta bizilekua lurralde nazionalan badute, osasun babeserako eta osasun laguntzarako eskubidearen titular gisa; hartara, Espainian osasun laguntzarako eskubidearen unibertsaltasuna ezarrita gelditu da. Eskubide horretatik kanpo bakarrik gelditu dira Espainian beren egoera erregularizatu gabe bizi diren atzeritarrak edo aberri-gabeak, "paperik gabekoak". Arazo larria da hori, eta Parlamentu hau horri buruz jardun da lehena-gore ere, baina une honetan ez gara horretaz arituko.

Errege dekretu horren arabera, Espainiako herritarrek –oraingo honetan horiei buruz ari gara bakarrik– osasun-txartel indibiduala eta Europako osasun-txartela eska ditzakete –lehenak Estatu osoan Osasun Sistema Nazionalaren osasun eta farmazia laguntza jasotzeko eskubidea ematen du; bigarrenak, berriz, Europako Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparruko lurraldeetan eta Suitzan–, baldin eta, hasiera batean eta oro har, Gizarte Segurantzaren babespean egon badira edo badaude, arauaren ñabardurak gorabehera. Berritasun gisa, osasun laguntza orobat emanen zaie Espainiako lurraldean bizi diren Espainiako herritarrei, nahiz eta Gizarte Segurantzaren estaldurarik eduki ez, baldin eta urteko diru-sarrerak ez badira 100.000 eurotik gorakoak eta ez badute beste bide batetik jasotzen osasun-prestazioaren nahitaezko estaldura.

Errege dekretuaren arabera, Gizarte Segurantzaren sistemako araubideaz bestelako gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batean egotea ez da osasun-prestazioaren nahitaezko estaldura.

Horren arabera, kasuko mutualitateetan edo ermandadeetan sartutako abokatu, ingeniari eta arkitektoak Osasun Sistema Nazionalan sartzen ahal dira eta kasuko osasun-txartel indibiduala lortzen ahal dute, bai eta osasun laguntzaren estaldura unibertsala eta finantzaketa publikokoa jaso ere; izan ere, osasun sistema orain dela urte asko ez da finantzatzen Gizarte Segurantzako kuoten bidez, baizik eta herritar guztiek ordaindu beharreko zerga orokorren bidez. Xedapen honen bidez, hasiera batean, Osasun Sistema Nazionalan sar daitezke, hala nahi baldin badute, sistematik bazter zeuden azken espainiar-taldeak, nola baitira elkargo bateko kide diren profesionalak.

Esan dezagun Osasun Sistema Nazionalak ematen duen laguntzara atxikitako herritarren artean daudela, errege dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitate Orokorrak, Indar Armatuaren Gizarte Institutuak eta Mutualitate Orokor Judizialak kudeatutako Gizarte Segurantzaren araubide orokorretako onuradun edo mutualista diren funtzionario publikoak. Xedapen hori ezin zaie aplikatu Foru Komunitateko Administrazioiko eta Nafarroako toki entitateetako funtzionarioei; izan ere, horiek –transferitutako funtzionarioak izan ezik– ez dira sekula egon araubide berezi horien estaldurapean. 1991tik edo 1994tik aurrera sartu direnak Gizarte Segurantzako araubide orokorrera daude afiliatuta, baina hori baino lehenago sartutako funtzionario asko eta asko marxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeak araututako foru edo udal montepioen estaldurapean daude oraindik. Foru-berezitasun horiek direla-eta, benetako arkaismo bat gertatzen da arlo horretan egun: montepioetako funtzionario horiek, jardunean nahiz erretiroa hartuta egon, ezin dute beren zergen bidez ere finantzatzen den Osasun Sistema Nazionala baliatu eta ezin dute osasun-txartel indibiduala lortu, nahiz eta herritar guztiek bezala ordaindu zergak.

Iritzi publikoaren aurrean sarritan aurkezten da pribilegio bat balitz bezala mutualitate horietako kide izatea eta mutualitate horien osasun-laguntza jasotzea –"erabilera normalekoa" edo "erabilera bereziko" baina bereziki bigarrena, teoriar borondatezkoa dena eta mutualitateetako funtzionario guztiek jasotzen dutena–. Halatan, hortz-poliza edo optikako gastuak baldintza oso onetan jasotzea pribilegio bat balitz bezala aurkezten da, baina esan gabe uzten da prestazio horiek ez direla doakoak, berekin baitaramate funtzionarioek kotizatzea. Horren guztiaren atzean ezkututzen den errealitatea askoz ere tristeagoa da. Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24an onetsitako Erregelamenduarekin bat jasotzen duten osasun

laguntza oinarritzen da, funtsean, funtzionarioek osasun laguntzako gastuen ehuneko 60 itzuli behar izatean –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zuzenean ematen ez duen osasun laguntzarena eta medikamentuena–. Hortaz, funtzionario horiek, beren nominetan jada zigortuak, beren gain hartzen dute ehuneko 40ko koordainketa –edo berrordainketa–, eta ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen ondorioz berrikusi egin zaie beren gastuen estaldura –beren kaltetan, betiere–, jaitsi egin baitzaie, urtean 200 eurora, hortz-eta oftalmologia-prestazioa. Bestalde, funtzionario horiek ezin dute osasun publikoa baliatu Nafarroako mugetatik ateratzen direnean beste autonomia erkidego batzuetara edo Europako beste edozein herrialdetara bidaiatzeko. Ondoko paradoxa ere gerta daiteke: zerbait gertatuz gero, Gizarte Segurantzari atxikitako bere familiakoek estaldura unibertsal eta doakoa izan dezakete Nafarroatik kanpo, eta funtzionarioa izan daiteke osasun publikoak artatzen ez duen bakarra.

Funtzionario horiek, baldin eta ez badute 100.000 eurotik gorako diru-sarrerarik –argi dago zaila dela, ezinezkoa ez esatearren, hortik gorako diru-sarrerak edukitzea egungo ordainsari gero eta txikiagoekin–, osasun-txartel indibiduala lortzetik eta Osasun Sistema Nazionalaren laguntzatik kanpo gelditzen dira, diskriminazio-egoera onartezinean, 1991tik aurrera sartu ziren foru funtzionarioekiko eta 1994tik aurrera sartu ziren udal funtzionarioekiko, horiek guztiek osasun-txartel indibidualetik heldu diren berme guztiak dituztelako Gizarte Segurantzaren afiliatuta egoteagatik.

Bestalde, ikuspegi ekonomiko orokor batetik, galde daiteke ea zergatik ordaindu behar diren Foru edo Udal Administrazioaren funtsekin funtzionarioek Nafarroatik kanpo –Espainian nahiz Europen– sortutako gastuen ehuneko 60ra arte; izan ere, Osasun Zerbitzu Nazionalak bere gain hartu beharko luke gastu hori, osasun publikoa finantzatzeko prozedura orokorren barruan, Foru Komunitatetik kanpo artatu beharreko beste edozein herritar nafarrekin gertatzen den moduan.

Alegia, osasun laguntza publikoa, errege dekretu horri esker, Espainiako herritar guztiari zabaldu zaien honetan, Nafarroan eutsi egiten zaio Osasun Sistema Nazionalatik bazter dauden azken herritarren multzoari, nahiz eta beren zergen bidez sistema finantzatzen duten.

Guk dakigula, Nafarroako Gobernuak ez du inolako urratsik egik diskriminazio egoera hori zuzentzeko; ez du inolako prozedura publikorik abiarazi eta ez du ematen inolako ekimenik hartzeko zirkulazio eginen duenik bere funtzionarioek Nafarroatik kanpo sortutako osasun gastua aurrez-

teko. Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Probintzialari dagokionez onartzea nor izan daitekeen osasun-txartel indibiduala izateko eskubidearen titularra edo onuraduna, ematen du erakunde horrekiko harremanen bat-edo egon beharko litzatekeela funtzionario horien egoera –jardunean nahiz erretiroa hartuta daudena– aztertzeko.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu hemen aipatutako auziei buruzko jarrera

azal dezan eta esan dezan ea inolako neurririk aurreikusten duen montepioetara atxikitako funtzionarioek modua izan dezaten osasun-txartel indibiduala lortzeko eta Nafarroatik kanpo osasun laguntza unibertsal eta doakoaren estaldura baliatzeko.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 30ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruzkoa.

PEDRO RASCÓN MACÍAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro Rascón Macías jaunak aurkeztutako galdera, osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Pedro Rascón Macíasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuak ezartzen du errepide bidezko osasun-garraioko ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura. Orobat zehazten du zer titulazio eduki behar duten zerbitzu hori ematen duten langileek. Hori ikusirik, ondokoa jakin nahi dut:

Osasun-garraioaren arloan zerbitzu ematen duten langileek 836/2012 Errege Dekretuan eskatutako titulazioak lor ditzakete laneko esperientzia kreditatuz. Eskaria handia izan daitekeenez gero, Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen dauka kasuko kreditatze-prozesuen deialdia egiteari dagokionez?

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2012ko ekainaren 28an

Foru parlamentaria: Pedro Rascón Macías

Galdera, “Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, “Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, Kulturako, Turismoko eta

Erakunde Harremanetako Departamentuak idatziz erantzun dezan.

“Nafarroak doan hartzen zaitu” turismo-kanpaina egin da 2012ko martxoaren 1etik ekainaren 30era bitarteko asteburuetan, bi asteburu horiek barne, Aste Santua (apirilaren 5etik 8ra) kenduta. Nafarroako Gobernuak informatu zuenez, denboraldi hori bukatutakoan dirurik gelditzen baldin bazen kontusailean, erreserbak egiteko bigarren epe bat irekiko litzateke, 2012ko irailaren 16tik azaroaren 30era bitarte. Hori dela-eta, ondokoa jakin nahi dut:

– Zenbat diru gastatu da “Nafarroak doan hartzen zaitu” kanpainaren lehen aldia, martxoaren 1etik ekainera 30era bitartekoan? Kontusailean geratzen al da dirurik, kanpainaren bigarren epe bat ireki ahal izateko? Ondokoei buruzko xehetasunak eskatzen ditut: trukaturako bono-kopurua, bono horiek zein datatan baliatu diren eta onuradunen jatorria (ea nongoak diren, Nafarroako Foru Komunitatekoak, beste autonomia erkidego batzuetakoak ala beste herrialde batzuetakoak).

Iruñean, 2012ko ekainaren 30ean

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruzkoa.

ENRIQUE MARTÍN DE MARCOS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Enrique Martín de Marcos jaunak aurkeztutako galdera, Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Lehendakariorde, Justizia eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendi jaunak idatziz erantzun dezan:

– Roberto Jiménez Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde kargutik kendu ostean Nafarroako Foru Administrazioan ordeztutako goi karguen zerrenda.

– Kargua utzi ondoko ordainsaria kobratzea eskatu duten goi karguen zerrenda. Zerrendan izenak eta karguak banan-banan ematea eskatzen

dut, bai eta kargua utzi zuten eguna eta ordainsaria kobratzea eskatu zuten eguna ere. Datu horiek guztiak erantzunaren egunekoak izan daitezela eskatzen dut.

– Kargua utzi ondoko ordainsaria kobratzeagatik pertsona horiek hilero jasoko dituzten zenbatekoak eta ordainsaria jasotzeko epea.

– Zein epetan aplikatuko zaien bateraezintasunen araubidea.

– Zein egunetan sartu zen indarrean ekainaren 21eko 12/2012 Foru Legea, Nafarroako Gobernu-

ko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.

-Nafarroako Gobernua birmoldatzean kendutako goi karguen zerrenda, eta hortik heldu den aurrezpena.

Iruñean, 2012ko uztailaren 5ean

Foru parlamentaria: Enrique Martín de Marcos

Galdera, Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainekoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Iratxeko monasterioari buruz Espainiako Gobernuarekin sinaturiko hitzarmenaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, zenbait argibide eskatzen ditu Espainiako Gobernuak eta Nafarroako Gobernuak Iratxeko monasterioari buruz sinatutako hitzarmenaren inguruan.

Iratxeko monasterioa Nafarroako ondarearen monumentu-multzo enblematikoenetariko bat da. Bere historia luzean, era askotako jarduerak hartu ditu bere hormen barruan: monasterioa, unibertsitate-egoitza, gerrako ospitalea, ikastetxe erlijioso

edo museo etnologikoaren behin-behineko egoitza, adierazgarrienak aipatzearen.

Turismoko paradore baten egoitza izan dadin etorkizunean Estatuari lagatzean instalazioen parte bat, beste aldi bat abiarazi zuen 2007tik aitzina bere historia luze eta oparoan. Baina krisiaren ondorioz –eta horrekin batera, Espainiako Gobernuak beste lehentasun batzuk ezartzearen ondorioz– sine die atzeratu da laster errealitate oparo izan behar zuena.

Egoera berriaz jabetzen garen arren, ez du ematen arrazoizkoa denik zenbait erabilera-mantentzea eta sustatzea, baldin eta murriztapen horiek eragin zituzten arrazoiak –obrak berehala hasiko zirela– desagertu badira.

Horrenbestez, haxe jakin nahi dugu:

Zeintzuk dira Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuak sinatutako hitzarmenaren oinarritzko baldintzak?

Nafarroako Gobernuaren ustez arrazoizkoa al da aurreikusitako murriztapenak mantentzea, baldin eta murriztapen horiek eragin zituzten arrazoiak –paradoreko obren hasiera– ez badira epe labur eta ertainean gauzatuko? Arrazoizkoa dela uste baldin badu, azaldu zein diren arrazoiak. Hala uste ez baldin badu, Nafarroako Gobernuak ekimenen bat abiaraziko al du Espainiako Gobernuaren aurrean murriztapen horiek ekiditeko?

Iruñean, 2012ko uztailaren 16an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Zer txosten eskatu ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministerioari Espainiako Bankuaren bidez igorritako testua idazteko? Horien bertsio osoak igortzea eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko uztailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko aurrekontuek eta egitura organikoak 2008, 2009, 2010 eta 2011n izandako bilakaerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko aurrekontuek eta egitura organikoak 2008, 2009, 2010 eta 2011n izandako bilakaerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, zenbait argibide eskatzen ditu Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoaren inguruan.

Uztailaren 25ean, Nafarroako Gobernuaren webguneak berak Gobernuaren zenbait ekimen jaso zituen, bere egitura organikoan eginiko birmoldaketei eta aldaketei buruzkoak. Besteak beste, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organiko berria jasotzen zuen.

Bestalde, Gobernuko lehendakariak behin eta berriro adierazi du azken asteotan zorrotasunez jardun behar dela eta Administrazioaren egiturak garai berrietara egokitu beharra dagoela.

Gauza nabaria da, berriz, departamentuari esleitutako diru-kopuru osoa nabarmen jaitsi dela azken urteotan, baina departamentuaren egitura organikoa ez da neurri berean murriztu.

Galdera idatziak:

1.- Departamentuaren aurrekontuen bilakaera, zuzendaritza nagusien eta zerbitzuen araberakoa, 2008an, 2009an, 2010etan eta 2011n.

2.- Departamentuaren egitura organikoaren bilakaera urte horietan.

3.- Egitura horrek egiten duen ehunekoak, urte horietako bakoitzean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 27an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, rgitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, rgitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, zenbait argibide eskatzen ditu Nafarroako Gobernuaren argitalpen-politikaren inguruan.

Foru Administrazioak argitalpen-politika baliatu ohi du Nafarroari buruzko azterlanak ezagutzera emateko, herrialdearen ezaupidearen dibulgazioa

egiteko eta Administrazioaren beraren zenbait jarduketak aurkezteko.

Politika hori Vianako Printzea Erakundeari esleituta egon ohi zen, harik eta, laurogeiko hamarkadan, bere koordinazioa organikoki Lehendakaritza Departamentuaren menpe egotera igaro zen arte.

Azken urteotan, departamentu eta erakunde atxikien jarduketak ugaritzearekin batera, politika hori lausotuta gelditu da, eta aldaketa handiak gertatu dira kontusailetan.

Afera hori egun zertan den jakite aldera, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Argitalpen-politikarekin lortu nahi diren helburuak, Administrazio osoari dagokionez.

2.- Departamentu eta erakunde atxiki bakoitzaren zerrenda xehaketa:

– 2011n horretara bideratutako kontusaila, gutzira.

– Argitaratutako lanen kopurua, monografiak eta aldizkariak bereizita.

– Ohiko ale kopurua, eta banaketa.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Sustapen Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Sustapen Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernuak Sustapen Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuak lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrিতa ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketan gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azkenaldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-erantzunak; izan ere, erantzunean hauxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipenaren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta arduradun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipenen behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia.”

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealtatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkututzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Sustapen Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketaren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Gizarte Politiketako Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Gizarte Politiketako Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuak lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrিতa ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketen gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azkenaldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari

egindako parlamentu-galderaren bidez. Galderaren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipe-naren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta arduradun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipe-n behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia.”

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealitatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkututzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Gizarte Politiketako Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketaren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Osasun Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Osasun Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuak lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrিতa ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketen gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azken aldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipenaren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta arduradun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipenen behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia”.

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealtatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkatzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Osasun Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketaren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Hezkuntza Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Hezkuntza Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuak lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrিতa ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketan gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azken aldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipe-naren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta ardura-dun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipe-n behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia”

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealitatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkatuz jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Hezkuntza Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldatetaren ehunekoak?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko kontusail guztietan izan den eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko kontusail guztietan izan den eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernu Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernu Lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-dotzua erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebako eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harridura ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketen gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azken aldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipe-naren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta ardura-dun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipenen behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia”.

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealtatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkatzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketa-ren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko kontusail guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko kontusail guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernu lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrizta ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketen gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azken aldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipe-naren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta arduradun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipe-nen behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia”

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealtatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkututzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horien gain eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketaren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren aplikazioak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko kontusail eta aurrekontu-lerro guztietan izanen duen eragin-graduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko Juan José Lizarbe Baztánek, ondoko galdera aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari, presako izapidea eman diezaion eta Nafarroako Gobernuaren Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzuteko:

Iragan ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuaren lehendakariak lehendakariordea eta kontseilari sozialistak kargutik kendu ostean, 132 milioi euroko aurrekontu-doitzea erabaki zuen UPNren Gobernu kolorebakar eta gutxiengoan dagoenak. Akordio hark esan nahi zuen de facto aurrekontu osoan esku hartzea, salbu eta hartatik espresuki salbuetsitako kontusailak.

Oraindik ez dakigu zein den aurrekontu-kontusailen gaineko egiazko afekzioa, eta herritar eta elkarte ugari daude erabateko ziurgabetasun-egoeran eta are harrিতa ere, Gobernuak iragartzen duenean bertan behera uzten dituela aurreikuspenak, deialdiak edo lehiaketen gaineko ebazpenak.

Parlamentu-talde hau behin baino gehiagotan saiatu da jakiten egiazko egoera zein den. Azken aldian, Rascón jaunak Ekonomiako kontseilariari egindako parlamentu-galderaren bidez. Galdera-

ren erantzuna jasota, erabatekoa izaten jarraitzen du informazio-ezak; izan ere, erantzunean haxe esaten du soilik: “.. Gobernuaren erabakiak departamentuetako arduradunei esleitzen die atxikipe-naren aplikazioa zehazteko ahalmena, eta ardura-dun horiek oraindik ez dutenez horri buruz ezer adierazi, ezinezkoa da kreditu-atxikipenen behin betiko aplikazioaren gaineko zehaztasunik eman, ekitaldiak aurrera egin ahala zehaztuko baita hori guztia”.

Gobernu Kontseiluaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak Ekonomia eta Ogasun Departamentuari esleitzen dio beste guztien gainetik ikuskatzeko, kudeatzeko, kontrolatzeko eta baimentzeko eskumena, eta erantzun hori ez dator eskumen horiekin bat, baina ezta errealtatearekin berarekin ere; izan ere, departamentu guztietan hartu dira erabaki ugari mota guztietako laguntzak eta diru-laguntzak kentzeari buruz. Erantzuna, finean, trikimailu merke bat baizik ez da, Parlamentuan egindako galderak ez erantzuteko eta defizitaren eta aurrekontu-murrizketaren egia ezkututzen jarraitzeko.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zeinak foru lege baten forma eta balioa baitu –hartara, agintari publikoek men egin behar diote eta bete egin behar dute nahitaez Erregelamenduan ezarritakoa–, honako galdera hau egiten dut, zehatz-mehatz jakite aldera zein den Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzaren kontusail guztien betetze maila, berariaz adierazita, orobat, 2012ko ekainaren 20ko erabakiaren afekzioa.

Galderaren testua

Zein da Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuaren 2012ko kontusail guztien eta bakoitzaren betetze maila eta Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko erabakiak nahiz beste edozein erabakik –aurrekontu arlokoa izan nahiz beste edozein arlotakoa izan– horiengan eragin duen afekzioa, murrizketa edo izoztea? Zein da aurreko egoerarekin alderatuta izandako aldaketaren ehunekoa?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 7an

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak dituen datuen arabera, zenbat egiten du 2012an PFEZeko egungo tarifa-tarte bakoitzean bildu den zenbateko garbiak?

Zein da zergadunen kopurua tarifa-tarte horietako bakoitzean?

Iruñean, 2012ko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehuneko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehuneko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

1. Zenbat igoko zen 2012an PFEZeko tarifaren azken tarteetako dirubilketa garbia, baldin eta tasa % 5 handiagoa izan balitz?

2. Zenbat igoko zen 2012an PFEZeko tarifaren azken tarteetako dirubilketa garbia, baldin eta tasa % 3 handiagoa izan balitz?

3. Zenbat igoko zen 2012an PFEZeko tarifaren azken tarteetako dirubilketa garbia, baldin eta tasa % 2 handiagoa izan balitz?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, zergak Nafarroan ordaindu zituzten pertsona fisikoen kopuruaren igoerari buruzkoa, Gipuzkoan ondarearen gaineko zerga mantentzearen ondorioz, Nafarroan kendu egin baitzen.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, zergak Nafarroan ordaindu zituzten pertsona fisikoen kopuruaren igoerari buruzkoa, Gipuzkoan ondarearen gaineko zerga mantentzearen ondorioz, Nafarroan kendu egin baitzen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak dituen datuen arabera,

1. Zenbat pertsona fisikogehiagok oradindu zituzten tributuak Nafarroan, Nafarroako Foru Komunitatean ondarearen gaineko zerga kendu zen bitartean Gipuzkoan zerga mantendu izanaren ondorioz?

2. Zenbat eurotan igo zen dirubilketa, baldin eta igo bada?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko dirubilketari buruzkoa, baldin eta ondarearen gaineko zergaren eredia berreskuratu izan balitz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak dituen datuen arabera,

Zein izanen zen dirubilketa 2012an, baldin eta berreskuratu izan balitz ondarearen gaineko zerga, zeina indarrean egon baitzen harik eta 2007-2011 legegintzaldian UPNk kendu zuen arte?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, jakiteko Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervás jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Foruzaingoaren arduradunak nola izan zezakeen zenbait parlamentarik beren bulegoetan 24 orduz egoteari buruz hartutako erabakiaren berri, erabaki hori jakinarazi aurretik.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu dizkio Lehendakariari, Justizia eta Barne Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Iragan abuztuaren 24an, zortzi parlamentari ekimen bat abiarazi zuten, zeina baitzen parlamentu-taldeek esleiturik dituzten bulegoetan gelditzea hogeita lau orduz, preso dauden pertsonen lege dagozkien eskubideen errespetuarekiko elkertasuna erakutsi eta salaketa egite aldera. Ekintza hori dela-eta izandako gertakariei dagokienez, ondokoa jakin nahi dut:

1.- Parlamentariok Parlamentuaren barruan gelditzeko erabakia jakinarazi baino zenbait ordu lehenago, Foruzaingoaren talde bereziak –uniformez eta kaleko jantziaren– parlamentu-egoitzaren barruan nahiz kanpoaldean egon ziren. Foruzaingoaren arduradunak zer azalpen eman dezake horren aurrean?

2.- Zure departamentuak nola jakin ahal izan zuen erabaki horren berri, baldin eta erabakia ez bazen jakinarazi abuztuaren 24ko goizeko hamaiak arte?

3.- Informazio hori lortze aldera, zure departamentuko arduradunek edo lankidetzan ari den beste edozein polizia-erakundek urratu egin al dituzte (esate baterako, sakelako telefonoen edo posta elektronikoen lege kanpoko kontrola eginez) ekintza hori egin zutenen eskubide parlamentarioak?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 27an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarre-

ko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernu kasuko departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak lurreko telebista digitaleko lizentziak emateko bi lehiaketaren deialdiak ebatzi zituen abuztuaren 20an: bata, autonomia mailako bi lizentzia emateko; eta bestea, tokiko hogeitaz lizentzia emateko foru erkidegoan dauden toki telebistako bost barrutietan: Iruña, Lizarra, Zangoza, Tafalla eta Tuteria.

Foru parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Zein da, zehazki, Iruñeko toki telebistako barrutiak hartzen duen lurraldea?

Iruñean, 2012ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren eta Olaztiko Portland lantegian hondakinak balorizatzearen artean dagoen loturari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak erretiratu duela berak aurkezturiko galdera, Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren eta Olaztiko Portland lantegian hon-

dakinak balorizatzearen artean dagoen loturari buruzkoa. Galdera hori 2012ko ekainaren 15eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Konstituzioko berdintasun printzipioaren urraketatzat jotzen al duen zenbait ikastetxe pribatutan irakasleak kontratatzerakoan egiten den sexuaren araberrako bazterketa, ikasgela bakoitzeko ikasleen sexuaren araberrakoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak Konstituzioko berdintasun printzipioaren urraketatzat jotzen al duen zenbait ikastetxe pribatutan irakasleak kontratatzerakoan egiten den sexuaren araberrako bazterketa, ikasgela bakoitzeko ikasleen sexuaren araberrakoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, irailaren 13ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak Konstituzioko berdintasun printzipioaren urraketatzat jotzen al du Miravalles, Redín eta Irabia ikastetxe pribatuetan irakasleak kontratatzerakoan egiten den sexuaren araberrako bazterketa, ikasgela bakoitzeko ikasleen sexuaren araberrakoa?

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik egoera hori zuzentzeko neurriren bat hartzeko?

Pamplona, 6 de septiembre de 2012

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak hitza ematen ote duen, Donapeako goi mailako lanbide ikastetxea dela eta, Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren borondate politikoa eta erabakia beteko duela.

PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak hitza ematen ote duen, Donapeako goi mailako lanbide ikastetxea dela eta, Nafarroako Parlamentuko gehiengoaren borondate politikoa eta erabakia beteko duela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Patxi Zabaleta Zabaletak, Nafarroako Bai parlamentu-taldeko kideak, hurrengo galdera hau egiten du, premiazkoa bezala hartu eta datorren 2012ko irailaren 13ko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko lehendakari andreak erantzun dezan.

• Prest al dago eta hitza ematen al du Nafarroako Gobernuak Donapeako lanbide goi mailako ikastetxeari buruz eta abian jarritako udal herrien gaintetik eragina lukeen egitasmoari buruz beteko duela nafar legebiltzarreko gehiengoaren borondate politikoa eta erabakia?

Iruñean 2012ko irailaren hamarrean

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Galdera, NUPeko ikasturte hasierako ekitaldian Foruzaingori emandako jarraibideei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, NUPeko ikasturte hasierako ekitaldian Foruzaingori emandako jarraibideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita NUPeko ikasturte hasierako ekitaldian izandako gertakariak, non zenbait ikaslek protesta egiten baitzuten tasa-igoeragatik eta kalitatezko hezkuntza baten alde:

Nafarroako Gobernuak zer jarraibide eman zizkion Foruzaingoiari, haren jokabidea neurrigabea eta zeharo onartezina izan zedin?

Iruñean, 2012ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Jesús Esparza Iriarte jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Jesús Esparza Iriarte foru parlamentariak aurtengo abuztuaren 1ean aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Francisco Javier Lorente Pérez jauna Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Francisco Javier Lorente Pérez foru parlamentariak aurtengo uztailaren 5ean aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Unión del

Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Amaya Otamendi Claramunt andrea Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Amaya Otamendi Claramunt foru parlamentariak aurtengo uztailaren 16an aurkezturiko idazkia, non jakinarazten baitu Unión del Pueblo

Navarro parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntak sortzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko irailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak emandako ekainaren 22ko 11/2012 eta ekainaren 29ko 19/2012 foru dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen dituztenak, eta ikusirik, baita ere, 2011ko abuztuaren 18ko Mahaiko Erabakia, zeinak xedatzen baitu Legebiltzarreko Batzorde arruntak bat etorri behar dutela Foru Administrazioari departamentuekin, Parlamentuko Erregelamenduko 58.1 artikuluaekin bat, hona ERABAKIA:

1. Aipatu 2011ko abuztuaren 18ko Erabakiaren 1. idatz-zatia aldatzea eta zehaztea hauek direla Parlamentuko Batzorde arruntak:

– Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordea.

– Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordea.

– Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordea.

– Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Batzordea.

– Hezkuntza Batzordea.

– Osasun Batzordea.

– Gizarte Politiketako Batzordea.

– Sustapen Batzordea.

2. Bost batzorde berri hauek sortzea:

– Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordea.

– Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordea.

– Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordea.

– Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Batzordea.

– Gizarte Politiketako Batzordea.

Batzorde hauek aurrekoak ordeztzen dituzte: Ekonomia eta Ogasun Batzordea; Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Batzordea; Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordea; Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Batzordea; eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Batzordea. Batzorde horiek iraungita gelditzen dira.

3. Sustapen eta Etxebizitza Batzordearen izena aldatzea eta Sustapen Batzordea deitzea.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko irailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

